



REAS
EUSKADI

REAS Euskadi Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea da, gaur egun ekonomiaren arloan irizpide alternatiboekin lanean diharduten 116 enpresa eta erakunde biltzen dituena.

Ekonomia sozial eta solidarioa garatzea du helburu; hau da, ekonomiaren alderdiak (produkzioa, finantzaketa, merkataritza eta kontsumoa) pertsonen eta komunitateen ongizatearen eta bizitzaren jasangarritasunaren zerbitzurako bitarteko gisa —eta ez helburu gisa— aldarrikatzen dituen ikuspegia eta jardunbidea garatzea.

Proiektua aurrera eramateko, une honetan pertsona bat behar du arlo hauetan lan egiteko:

1) Ekonomia solidarioa eta politika publikoak sendotzea eta 2) Feminismoa, ikerkuntza eta prestakuntza

REAS Euskadiren koordinazio-taldeko kide izango da, lankidetzeta eta horizontaltasuna ezaugarri dituen laneko gunean. Hautatuko dugun pertsonak sarearen misioa eta helburuak garatzen lagundu beharko du, haren balioekin bat, eta lan-proiektuen kalitate teknikoa zainduko du. Bi arloetan lankide izango duen pertsonarekin batera, ardura hauek hartuko ditu bere gain:

- Politika publikoen arloa garatzea, eremu hauetan: enplegua eta gizarteratzea, nazioarteko lankidetzeta, zaintza eta feminismoa, eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren (ESS) —orokorrean eta sektoreka— eta Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen (GEHS) sustapena.
- Sareko bazkide diren erakundeen enpresak sendotzearekin lotutako programak eta jarduerak gauzatzea.
- «Erakunde bizigarrien» kontzeptua garatu eta martxan jartzea sareko erakunde bazkideetan.
- ESSaren diskurtsoa eraikitzen eta zabaltzen laguntzea, ikerketa-jardueren bidez, ekonomia kritikoko ikuspegi berriak ekarriz, prestakuntzaren bitartez, sentsibilizazioa jorratuz eta materialak sortuz.

Horretarako, zeregin nagusi hauek izango ditu:

- Erakundeekiko solaskide izatea beste sare, eragile eta erakunde publiko batzuekin lankidetzan aritzea, dagozkion ardura-arloetan.
- Askotariko eremu eta sektoreetan, ESSan oinarritutako politika publikoak sustatzeko programak eta jarduerak gauzatzea.
- Posizionamendu politikoaren garapena koordinatzea eta lege-garapenetan ekarpenak egitea.
- Ekonomia Solidarioaren inguruko programak, ikerketa-jarduerak eta diskurtsoa



REAS EUSKADI

eraikitzeke ekintzak bideratzea.

- Ekonomia Solidarioaren identitatean eta jardunean ikuspegi feminista txertatzeko programak eta jarduerak abiaraztea.
- Genero-ikuspegia proiektuetan, jardueretan, programetan, planetan eta abarretan txertatzea, zeharkakotasunez.
- Lantalde espezifikoak dinamizatzea. Lan-planak sortu eta abian jartzea, eta horien jarraipena egitea.
- Lantaldearen koordinazio horizontal eta erantzunkidearekin lotutako zereginenez arduratzea.
- Proiektuak proposatu eta kudeatzea.

Ezagutzak eta esperientzia

ESKAKIZUNAK:

- Unibertsitate-gradua, bereziki Gizarte Zientzietan, Ekonomian edo Enpresen Administrazioan eta Zuzendaritzan.
- Masterra, graduondokoa edo espezializazio-ikastaroa genero-berdintasunean / Feminismoaren eta generoaren inguruko ikasketak.
- Bost urteko esperientzia, gutxienez, ESSaren esparruan eta horrekin lotutako gaietan, edo nazioarteko lankidetzarekin eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzarekin lotura duten proiektuen kudeaketan.
- Hiru urteko esperientzia profesionala, gutxienez, genero-erreferente gisa edo berdintasun-planak gauzatzen eta/edo erakundeetan genero-ekitatearen aldeko aldaketa-prozesuetan.
- Ezagutzak eta esperientzia, politika publikoen diseinuaren eta kudeaketaren esparruan.
- Mugimendu feministako erakundeetan eta/edo sareetan jardutea eta horiekiko lotura izatea.
- Ekonomia Solidarioaren proiektu politikoarekiko lotura eta konpromisoa.
- Euskara ezagutzea: C1 maila.
- Erabiltzaile aurreratuaren maila ofimatikako tresnetan, Interneten eta sare sozialen erabileran.

OSO KONTUAN hartuko da:

- Prestakuntza espezifikoa Ekonomia Sozial eta Solidarioaren esparruan.
- Prestakuntza espezifikoa nazioarteko lankidetzan eta Gizarte Eraldaketarako



REAS EUSKADI

Hezkuntzan.

- Hizkuntzen ezagutza (ingeleza eta/edo frantsesa).
- Software libreko tresnen gaineko ezagutza.

Gaitasunak

- Lana antolatzeko eta dagozkion arloei buruzko erabakiak hartzeko autonomia eta ekimena.
- Emaitzetara bideratuta egotea.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Informazio-prozesuak aztertze, laburtze eta lantze gaitasuna.
- Proiektuak kontzeptualizatzeko eta idazteko gaitasuna, eta txostenak, dokumentuak, artikulatuak eta abar egiteko.
- Taldeak dinamizatzeko eta kudeatzeko gaitasuna.
- Helburuak eta emaitzak jorrazteko lankide eta laguntzaile gisa behar ditugun beste erakunde, elkarte eta sare batzuekin harremanak finkatzeko gaitasuna.
- Dagozkion ardura-arloarekin lotutako ekintzak sustatzeko eta dinamizatzeko gaitasuna.
- Komunikatzeko eta jendaurrean hitz egiteko gaitasuna.
- Ordutegi-malgutasuna eta eginkizun eta lan-zama berrietara egokitzeko gaitasuna.
- Harremanekin lotutako gaitasunak: entzutea, enpatia, elkarreragiteko eta taldean akordioak eta emaitzak lortzeko gaitasuna, gatazkak kudeatzea eta abar.

Lanpostuaren baldintzak eta hautaketa-prozesua

- ✓ Kontratuaren iraupena: mugagabea, legezko probaldia gainditu ondoren.
- ✓ Arduraldi osoko lana. 1. taldea, Bizkaiko esku-hartze sozialeko hitzarmena.
- ✓ Lanpostuaren kokapena: Ekonopolo (Bilbo).

Interesa dutenek helbide elektronikoa honetara bidal dezakete CVa, **2024ko urtarrilaren 5a baino lehen**: reaseuskadi@reaseuskadi.eus.

Lanpostuaren profil profesionalari ondoen egokitzen zaizkion hautagaiekin soilik jarriko gara harremanetan; alde aurreko hautaketaren ondoren elkarrizketak egin ahal izango dira hautagai bakarri aukeratzeko.